



Larrialdi
plana

Jaiiki

norabide berri
bati ekiteko

ehbildu



1.	Sarrera	4
2.	Misioa	4
3.	Egoeraren azterketa	4
4.	Jardun-arloak	5
4.1.	Osasun publikoa	5
4.2.	Ekonomia	7
4.2.1.	Diru-sarrerren bermea eta etxeko ekonomia	7
4.2.2.	Saltoki txikiak eta autonomoak	9
4.2.3.	Manufaktura-industria eta eraikuntza	11
4.2.4.	Kultura eta haren industria	13
4.3.	Gizarte-zerbitzuak	14
4.4.	Hezkuntza-sistema	15
5.	Baliabide publikoak eta pribatuak	16
5.1.	COVID tasa	17
5.2.	Berreraikuntzarako Europako funtsak	18
5.3.	2020ko ekitaldiko gastu-aurreikuspenen aldaketa	19
5.4.	Fiskalitate berria	19
5.5.	Aurrekontu-egonkortasunaren gaineko politiken desaktibazioa	19
5.6.	Inbertsio estrategikoetarako funtsa	20
6.	Epilogo	21

1. SARRERA

Hurrengo hilabeteak erabakigarriak dira COVID-19ren ondorioz sortutako krisiaren kudeaketan. Alde anitzetara begiratuz kudeatu beharreko garaiak izango dira: alde batetik, krisiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko premia neurriak hartu behar dira. Bestetik eta berehala, etorkizuna prestatu behar da, politika publikoei ikuspegi berri bat aplikatuz. Premia larriei aurre egiteaz gain, transformazio-bektore bat aktibatu behar da, sistemaren akats larriei eraso egingo diena eta gaurtik hasita garapen eta gizarte-ongizateko eredu berri baten oinarriak eraikitzen hasiko dena. Berehala jaiki, norabidea zuzendu eta ibiltzen hasteko. Lehenengo gauza zutik jartzea da.

Krisiaren dimentsio sanitarioa eta sozioekonomikoa gutxiestea etorkizun hurbilean erraz ordain daitekeen akatsa da. Eusko Jaurlaritza eta EAJ akats hori egiten ari dira. Eta interes elektoral batek bultzatuta ari dira, eta hori arduragabekeria larria da. Historia garaikidean aurrekaririk ez duen krisi honi neurria hartu behar diogu, eta gure gaitasun komunitarioak berehala aktibatu, inguruabarrei aurrea hartzeko eta egoera sozioekonomiko benetan konplexu baten aurrean birkokatzeke.

2. MISIOA

Larrialdi plan instituzional honen zeregina da, egungo krisiaren berehalako ondorioak, ahal den neurrian arintzeko beharrezkoak diren tresna publiko eta pribatuak artikulatzea, eta aldi berean, etorkizun hurbilean beharrezkoak diren finantzaketa- eta inbertsio-mekanismoak artikulatzea, bertatik, berrikuntza, berdintasun eta ekitate-oinarri berriekin irteteko, desberdintasun-arrisku handiagoaren aurrean inor albo batetara ez uzteko eta hamarkada honetan dituen erronka erraldoiei aurre egin ahal izateko.

3. EGOERAREN AZTERKETA

EH Bilduk hasieratik nabarmendu du harreman zuzena dagoela krisi sozio-sanitarioaren kudeaketaren eta susperraldi ekonomikoaren artean. Komunitate zientifikoaren gomendioei jarraiki, osasun-krisiari bi fasetako logikaren bidez heldzea proposatu genuen: lehenengoa, hedapen-kurba ahalik eta denbora laburrenean ahalik eta gehien jaitea. Helburu hori lortzeko ezinbesteko neurria biztanleria erabat konfinatzea zen, eta horrek funtsezkoa ez zen jarduera ekonomikoa aldi baterako geldiaraztea eskatzen zuen. Eta bigarren fasearen helburua, birusaren hedapena ahalik eta gehien murriztea da, kutsaduraren miaketa proaktiboaren bidez. Bigarren fase honetako tresna nagusiak PCR proben bidezko testatze sistematikoa eta kutsatutako pertsonen isolamendua dira.

EH Bilduk deseskalada plan bat aurkeztu zion Urkullu Lehendakariari apirilaren 24ko Diputazio Iraunkorraren bileran. Epidemiologo adituek gainbegiraturako plan horrek prozedura zehatza proposatzen du bigarren fase honetarako. Gaur egun, deseskalada prozesu betean, inprobisazioa da nagusi eta ez da irizpide zientifikoaren arabera jokutzen ari. Itsumustuan goaz. Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa arduragabeak irteera-laukitxora itzultzeko arriskua dakarkigu.

Bada, denbora honetan guztian izan dugun premisa azpimarratzen dugu: zuzeneko harremana dago krisi sozio-sanitarioaren kudeaketaren eta ekonomiaren aktibazioaren artean. Susperraldi ekonomikoa ezinezkoa izango da birusaren hedapenaren eta kutsatutako pertsonen isolamenduaren miaketa proaktiborik gabe. Eta hori ez da egiten ari.

Analisi sozioekonomikoa

Pandemiaren ondorioz izango diren behar sozial eta ekonomiko handiak direla eta, baliabide publiko eta pribatu ugari mobilizatu behar da, hain zuzen ere, historia hurbilean aurrekaririk ez duten diru-sarrera fiskalak gutxituko diren testuinguruan. Gastu-beharrak ez datoz bat aurreikusitako diru-sarrerekin.

Bestela esanda, faktura handiegia da, diru bilketa aurrekaririk gabe murriztuko den une honetan. Zutik jartzeak eta norabide egokian ibiltzeak baliabide ekonomiko handiak eskatzen ditu, eskasia handiko testuinguru batean.

Egoera horrek administrazio publikoak planteamendu oldarkor bat martxan jartzera behartu behar ditu, aberastasuna sortu eta gizarte-desberdintasunak murriztea helburu, jarduteko lehentasunak eta baliabideen esleipena birpentsatzera. Gizarte-ongizateari ikuspegi publikotik benetan balioa zerk ematen dion aztertu eta baliabideak horra bideratuz, kudeaketa eraginkor eta efizienteena eginez. Aldi berean, ezohiko diru-iturriak aktibatu behar dira, eta orain arte erabili gabeko finantzaketa-mekanismoak eskuratu.

Funtsezko galderetako bat, bestetik, faktura nola ordaintzen den da. Krisi honek lan eta ahalegin kolektiboa eskatzen du, elkartasunetik eta erantzunkidetasunetik heldu behar zaio, ikuspegi demokratiko sakon baten bidez. Gehien dutenek gehiago ordaindu behar dute, piramidearen gailurretik hasita. Eta, jakina, baliabide publikoen kudeaketaren zorrotasunetik, efizientziazetik eta efikaziazetik heldu behar zaio.

Denbora faktorea eta gobernantza, bi faktore erabakigarri

Denboren kudeaketa erabakigarria da, erreakzionatzeko gaitasuna ezinbestekoa da. Orain egin behar dena ezin da gero-rako utzi. Orain galtzen den denbora ezingo da gero berreskuratu. Ildo horretan, hurrengo hiru hilabeteak funtsezkoak dira eta larrialdi-plan instituzional bat diseinatu eta aktibatu behar da.

Erakundeen arteko talka-plan hori (hobe esanda erakundeen artekoa, erakunde-maila guztiek modu koordinatuan parte hartu beharko baitute) funtsezko bi zutabetan oinarritu behar da: sektore publikoa indartu eta ekonomia aktibatzeke inbertsio publiko efizientea eta efikaza egin.

Larrialdi planaren diseinua, hura gauzatzeko mekanismoen abiaraztea eta hura finantzatzeko baliabide ekonomikoaren eskuragarritasuna hurrengo hilabeteetan bideratu behar dira, uda baino lehen. Orain da momentua, ezin gara gehiago atzeratu. Erreakzionatzeko gaitasuna funtsezkoa da larrialdi planaren jardun-arlo guztietarako. Bada garaia 2020ko ekitaldiko aurrekontua berrantolatzeke, baliabide publikoak eta pribatuak mobilizatzeko, itxaron ezin dituzten beharrei aurre egiteke eta behar ditugun finantzaketa- eta inbertsio-mekanismoak aktibatzeke, datorkigun egoera sozioekonomiko hain konplexuari gure gaitasunak aktibatuz aurre egin ahal izateke..

Eta, era berean, garrantzitsua da hartu beharreko neurrien diseinua eta finantzaketa ahalik eta adostuena izatea. Garai zailak datoz eta erabaki garrantzitsuak hartu beharko ditugu herri bezala. Osasun-krisiaren kudeaketari eta haren ondorio sozioekonomikoei hoberen erantzuten ari diren herrialdeak lankidetzazko gobernantza-ereduak baliatzen dituztenak dira, erantzunkidetasuna gauzatzen dutenak, hain zuzen ere. Lankidetzarako garaia da, baliokidetasunaren logika, logika diferentzialari gailentzeko garaia.

Herri honek gaitasun komunitario nahikoa du COVID-19ak irekitzen duen testuinguru historikoari aurre egiteke. Gobernatuko duen gobernu bat behar da, ondo gobernatuko duena. Oposizioko alderdiak, eragile ekonomiko nagusiak eta gizarte zibila partaide egingo dituen gobernu bat, bai krisi sozio-sanitarioaren kudeaketan, bai etorkizuneko politika sozioekonomikoen orientazioa zuzenduko duten oinarrien diseinuan.

4. JARDUN-ARLOAK

4.1. OSASUNA

Aurreikuspenik eta plangintzarik ezak baldintzatu egin du eta baldintzatzen ari da COVID-19aren aurreko erantzuna. Era berean, ezin da ahaztu COVID19ari aurre egiteke gaitasuna erabat baldintzatu dutela Osasun Sistemaren egoerak eta egiturak. COVID-19a gure Osasun Sistema Publikoa estresatuta eta ahulduta zegoenean iritsi zaigu. urtetan zehar lehenetsitako politiken ondorioak pairatu ditugu: murrizketak, lanpostuen amortizazioa eta behin behinekotasun tasa altuak. Eta Osasun Publikoko Zuzendaritzak ia ez du pisurik izan Osasun Sistemaren, erabat bazterreke lekua izan du.

Kontrapuntua, bereziki eskertu behar diegun profesionalak jarri dute. COVID-19ari eta hasierako muga horiei guztiei aurre egin zaie, osasunaren arloko profesional horien guztien, adinekoentzako egoitza-zentroetako langileen, etxez etxeko arreata-zerbitzuetako langileen eta abarren ahaleginari esker. Lehen leerroan egoteaz gain, protokoloak, erregistroak eta babes-ekipoak antolatu behar izan dituzten langile horiei guztiei esker.

COVID-19ren kudeaketa, desinformazio-historia bat izaten ari da EAEn, koordinaziorik eza, noraeza, gardentasunik eza eta zuloen estaltze etengabe bat. Gauden deseskalatze-prozesuak kasu berriak ekarriko ditu, eta argi izan behar dugu COVID-19ekin denbora luzez bizi beharko dugula eta etorkizunean beste pandemia batzuk etor daitezkeela, eta sistemak prest egon behar du berriro kolapsatu ez dadin. Horretarako, aurreikuspenekin ekin behar zaio eta plangintza hobetu behar da gaurtik hasita. Akatsak berehala zuzendu behar dira, COVID-19ren kontrol eta jarraipen egokia egiteke estrategia artikulatu behar da, eta epe ertainera antolatu behar gara pandemiaren hasieratik hautemandako akatsak eta hutsuneak errepika ez daitezen, batez ere gerta daitekeen eta aurreikus daitekeen gorakada baten aurrean.

Birusa goiz detektatzeko eta arakatzeko estrategia integrala

41:A1: Datozen 6 hilabeteetan 1.000.000 PCR proba eta ahalik eta test serologiko gehien egitea herritarrei.

41:A2: Sintomak dituzten pertsona guztiei 24 ordutan probak egiten zaizkiela bermatzea, hiru lurraldeetan PCR probak egiteko guneak irekiz.

41:A3: Konfinamendutik modu koordinatuan ateratzeko EH Bilduren planean proposatutako birusa modu proaktiboan arakatzeko neurriak martxan jartzea. Positibo eman duten pertsonen balizko kontaktu guztiei PCR probak egitea, sintoma gabekoak edota oraindik sintomarik ez duten pertsonak detektatzeko.

Lehen mailako arreta

41:B1: COVID-19ri aurre egiteko egindako kontratazioei eustea eta lehen mailako arreta indartzera bideratzea.

41:B2: 300 kode berri sortzea, lehen mailako arretako plantilla egonkortzeko eta indartzeko.

41:B3: Medikuen, erizainen eta administrari laguntzaileen kontratazioa handitzea, lehen mailako arretako plantilla %10 handituz larrialdi-egoerari aurre egiteko.

41:B4: Beren egoera hobetzen ari diren adinekoentzako eta desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza-zentroei laguntzea eta jarraipen-plan bat eskaintzea, arazoak azkar detektatzeko eta beharrezko neurriak hartzeko.

Osasun Publikoa indartzea jarraipen epidemiologiko eta azterketak egiteko

41:C1: Gaur egungo 60 profesionalz gain, 65 profesional gehitzea, 23 eta 25 kategoria artekoak. 30 gehiago Bizkaian, 20 gehiago Gipuzkoan eta 15 gehiago Araban.

Babes-ekipoak

41: D1: Osakidetza OSletako langile guztiei eta emergentzietako langileei (garbitzaileak, mantentze-lanetako langileak, administrariak, administrari laguntzaileak, medikuak eta erizainak, zaintzako langileak) beharrezko babes-ekipoak bermatzeko plangintza egitea. Horretarako, horniduren eta erosketen politika birdefinitu behar da, eta baliabide propioak ekoizteko aukerak aurreikusi behar dira, EAEko enprekin lankidetzan.

41: D2: 65 urtetik gorako pertsonen eta arrisku-taldeetako pertsonen maskarak doan errezeta bidez agintzea.

Plantilla

41:E1: Osakidetza egitura-plantilla indartzea, egungo behin-behinekotasun-tasari aurre egiteko (%40). Gaur egun kodifikatu gabe dauden 3.000 lanpostuak kodetzea, gutxienez 7.000 lanpostu egitura-lanpostu bihurtzea, horretarako kontsolidazio prozesuak martxan jartzeko beharrezko izapideak hastea eta langileak kudeatzeko eta kontratatzekeo egungo politika aldatzea.

Oinarrizko prebentzio unitatea

41:F1: Oinarrizko prebentzio unitatea indartzea, prestakuntzan sakontzeko eta langile guztiek irizpide berberak partekatzekeo.

Emergentziak

41:G1: Emergentzietako anbulantzi itunduetako bitarteko erabilgarriak (baliabideak eta segurtasun-neurriak) indartzea eta COVID-19ren balizko bigarren ziklo baten aurrean ospitalez kanpoko larrialdiak berrantolatzekeo proposamen bat egitea.

41:G2: Birusaren hazkundearen bigarren zikloaren aurrean, logistikako, prestakuntzako eta prozeduren eguneraketako ekintzak abian jartzea.

41:G3: Emergenezietako langileentzako babes-ekipoen stocka bermatzea.

41:G4: Pandemiaren garapen-faseei erantzungo dien beharrezko baliabide operatiboak aktibatzekeo plan bat diseinatzea.

ZIUak

41:H1: ZIUak irekitzeko eta indartzeko beharrezko plangintzan sakontzea, langile prestatuekin, teknologiarekin eta bali-zko gorakadaren aurrean alde zurretik jardun ahal izateko behar diren oheekin.

41:H2: Osakidetzako beste eremu batzuetako langile boluntarioak identifikatzea, formatu eta prestakuntza intentsiboe-tan etengabe entrenatzeko.

Oheak

41:I1: Osakidetzan erabilgarri dauden oheen kopuruaren egokitasuna aztertzea.

41:I2: Oheak irekitzeko planteamendu bat definitzea, etorkizunean gerta daitezkeen gorakaden edo bestelako osasun-la-rrialdien aurrean eraginkortasunez eta azkar erantzuteko.

41:I3: Gernikako Ospitaleko hirugarren solairuan oheak irekitzea.

4.2. EKONOMIA

COVID-19k sortutako krisiak ondorio larriak izango ditu enpleguan eta enpresetan. Langabeziak nabarmen egin du gora azken hilabeteetan, eta aurreikuspenak nahiko kezagarriak dira: litekeena da gaur egun ERTE bat bizitzen ari diren pertso-nen ehuneko handi bat langabezia geratzea datozen hilabeteetan; babesik gabeko langabeen herena; enpleguaren sorrera desitxuratzeko ari da eta, gutxienez, hiru urteko denbora-muga aipatzen da krisi honen aurreko langabezia-ehunekoetara itzultzeko, zeintzuek Europako azken bagoietan kokatzen gintuzten jada. Enpresa txiki eta ertainak, autonomoak, merkataritxikiak, industriaren eremuko enpresak, ziurgabetasun handiko egoera dute aurrean.

Testuinguru honetan, funtsezkoa da une honetan bizi dugun krisia arintzen saiatuko den plan ekonomiko berritzaile bat izatea. Ekonomia aktibatzekeo neurriak, kaleratzeak eta langileen pobretze masiboa saihesteko, pertsona ahulenen kole-ktiboak babesteko eta enpresei beren egiturei eta lan-indarrari eustea ahalbidetzeko, krisitik ahalik eta azkarren atera daitezzen.

Inbertsio publiko oso garrantzitsua behar da, egia da, baina alternatiba okerragoa da: langabezia gehiago edo pertsiana jaitsi behar duten enpresa eta negozio gehiago. Gure ustez, egin beharreko hautua argia da.

4.2.1. Diru-sarreraren bermea eta etxeko ekonomia

COVID-19ri eusteko hartutako neurriek zailtasun handiak eragin dizkiete pertsona askori: negozioak aldi baterako ixtea, lanaldi-murrizketak, kaleratzeak, ez ordaintzea edo nomen ordainketa atzeratzea, ERTEak, etab.

Zailtasunak larriak dira EAEn pobrezia-arrisku handiena erregistratzen den unean; izan ere, enplegua izan arren, 100.000 pertsonak baino gehiagok ezin diete aurre egin oinarritzko premiei eta lau familietatik batek ez du aurrezkeria ezusteko bati aurre egiteko.

Une honetan, milaka pertsonen beren diru-sarrerak errotik murriztu zaizkie edo horiek gabe geratu dira, egun batetik bes-tera zailtasun handiak dituzte oinarritzko premiei eta gastuei aurre egiteko. COVID-19k erakutsi digu uste genuena baino askoz ahulagoak garela.

Krisi hau, diru-sarrerak bermatzeko gure politikek, azken urteotan egindako murrizketen eta erreformen ondorioz, es-taldura-gaitasunean, estaldura-gaitasunean eta babes-intentsitatean muga handiak dituztenean ematen ari da. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ez du Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemari inolako aldaketarik planteatu Covid-19aren larrialdiak sor-tutako diru-sarreraren premia berriei aurre egiteko. Une honetan krisi honen ondorioz zailtasun ekonomikoak bizi dituzten

pertsona horiek guztiek sisteman sartzeko aukerarik ez dute izango eta babesik eta diru-sarrera nahikorik gabe geratuko dira.

Testuinguru honetan, Estatuko Gobernuak EAEn abian jarritako babes-neurriak nahikoak ez direnez, eta pertsona ahulenak babestea haien eskubideak aitortzetik abiatzen dela ulertuta, premiazkoa da babes-arloan ditugun tresna guztiak egokitzeko gure eskumenak erabiltzea, ahal den neurrian, herritarren errenten galera minimizatzeko eta etorkizun hurbilean etxeetako ziurtasun ekonomikoa bermatzeko.

Diru-sarreraren bermea

DSBE/EPO (IHP)/GLL diru-sarrerak banatzeko sistemen premiazko aldaketa.

421:A1: Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Errentari buruzko 18/2008 Legean aurreikusitako prestazioaren gehieneko zenbatekoak berrezartzea.

421:A2: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta erabiltzeko pizgarriak aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen ondoriozko prestazioetara, langile autonomoen jardura uzteagatik aparteko prestazioetara eta etxeko langileentzako prestazioetara zabaltzea, eta horiek aplikatzeko gehieneko epea luzatzea.

421:A3: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko baldintzak malgutzea edota ezabatzea eta izaera murriztailea duten interpretazio-irizpideak aldatzea.

421:A4: Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren zenbatekoak handitzea eta alokairuaren diru-sarreraren eta prezioen arabera kalkulatzea.

421:A5: Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako ordainketa-kreditua handitzea, baldintzak betetzen dituen eskaerarik ez baztertzeko. Gastu espezifiko bakoitzerako gehieneko zenbatekoak handitzea eta gutxieneko zenbateko batzuk ezartzea. Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko behar diren baldintzak malgutzea edota ezabatzea.

421:A6: Familien diru-sarreraren galera murrizteko zerga-kreditu itzulgarri bat martxan jartzea.

Berrikuntza: Diru-Sarrerak Bermatzeko Sistemaren diseinu berria

421:B1: Urteetan zehar EAEko babes politikak ezaugarritu zituen berrikuntza-gaitasuna berreskuratzea Diru-sarrerak babestu eta bermatzeko esparruan. Gaitasun hori baliatu behar da "Ingreso Mínimo Vital Estatal" deritzana EAEn martxan nola jarri Estatuko Gobernuarekin negoziatzeko. Prozesu hori baliatu behar da, diru-sarrerak bermatzeko gure sistemaren diseinu berri bati ekiteko eta eredu unibertsalago, ez hain baldintzatu, normalizatuago eta irismen eta eraginkortasun handiagoko baterako bidean aurrera egiteko.

Zaintzak

421:C1: kontziliaziorako laguntzak eskatzeko unean ordainketa aurreratu bakarra egitea; 16 urtetik beherako seme-alabei laguntza, arreta eta zaintza ematea; seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzak; baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei laguntzak ordaintzeko esleitutako kreditua handitzea.

421:C2: eguneko zentroen itxierak kaltetutako 6.000 familiari baino gehiagori familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa ofizioz aitortzea eta atzeraeraginezko izaerarekin ordaintzea.

Hipoteken ordainketa

Egoitza soziala EAEn duten banku eta aurrezki-kutxa pribatuek eta gainerako finantza-erakundeek pertsonen zein enpresei ziurtasunezko etorkizuna bermatzeko ahalegina egin behar dutela planteatzen da. Zehazki, maiatza eta iraila bitarteko denbora-tarte mugatuko hiru neurri proposatzen dira.

421:D1: Irailaren 30era arte hipoteken eta kredituen kuoten ordainketa etetea, diru-sarrerak murriztu zaizkiela egiazta dezaketen eta COVID-19k ekonomikoki kaltetu dituen pertsonentzat.

421:D2: Kasu horietan ere interesak barkatzea, irailaren 30a arte.

421:D3: Amortizazioen berregituraketa urritik aurrera.

Zorpetutako pertsonaren edo enpresaren egoerak hobera egiten ez badu, neurriak beste hiru hilabetez luzatu ahal izango dira, gehienez ere, abenduaren 31ra arte. Horretarako, dagokion egiaztapen-informazioa aurkeztu beharko da.

Alokairuak

421:E1: COVID-19k ekonomikoki kaltetutako pertsonak parke publiko babestuen alokairua ordaintzetik aldi baterako salbuestea. Parke publiko babestuaren alokairuen atzeraeraginezko berrikuspena, maizterren diru-sarreraren aldaketetara egokitzeko. Hurrengo epemuga duten kontratuen luzapen automatikoa.

421:E2: Babes publikoko etxebizitzaren parkeko edozein etxebizitza, baita babes publikoko etxebizitzaren sustapen pribatuak ere, saltzera bideratutako oraingo eta etorkizuneko ekintza guztiak bertan behera uztea.

421:E3: Lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiliko da babes publikoko etxebizitza guztietan, etxebizitza-parke publikoa handitzeko.

4.2.2. Saltoki txikiak eta autonomoak

COVID-19ren krisian, lan autonomoaren sektorea izan da gehien kaltetuenetako bat. Langile autonomoek ematen dituzten zerbitzu asko presentzialak direnez, jarduera gehienak etenda edo oso mugatuta geratu dira alarma-aldian. Zaila da herri honetako milaka eta milaka herritar bizitzen ari diren egoera honen larritasun ekonomiko eta psikologikoa hitzekin adieraztea, bereziki, merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan izan duen eragina kontutan izanik.

Espainiako Estatuak neurri ekonomikoei buruzko dekretu bat onartu zuen martxoaren 17an, eta bertan, "Jarduera uzteagatik aparte prestazio bat" gaitu zen "alarma-egoeraren ezarpenaren ondorioak pairatu zituztenentzat", jardue- ra erabat eten edo gutxienez %75eko beherakada izan zutenei aplikatzeko. Prestazioa "gutxieneko kotizazio-oinarriaren %70aren baliokidea" da. Praktikan, horrek esan nahi du onuradunek 700 euro baino gutxiago kobratzen dutela. Kalkuluen arabera, EAEn 175.000 langile autonomo inguru daude. Horietatik, 53.000 inguruk jarduera uzteagatik konpentsazioak jaso dituzte. Lehen ordainketa apirilaren amaieran egin zenez, pertsona horiek martxoaren 15etik apirilaren 30era bitartean egon dira inolako diru-sarrerarik gabe, eta ordutik aurrera hileko 700 eurekin.

Eusko Jaurlaritzaren erantzuna are etsigarriagoa da. Apirilaren 7ra arte ez zen langile autonomoei zuzendutako neurririk hartu. Egun horretan 3 milioiko partida onartu zen sektorearentzat, gehienez 3.000 euro pertsonako. Ezaguna da neurri honekin gertatu zena, forma eta edukizko zentzugabekeria gisa baino ezin dena kalifikatu. Eskandaluaren aurrean, Gobernuak iragarri zuen 30 milioi euro gehiago jarriko zituela sektore autonomorako, baina oraindik ez dute neurri berririk aktibatu (maiatzaren 18-22ko astean egitea espero dute).

EAE, Estatuako autonomia-erkidegoen zerrendaren bukaeran dago langile autonomoentzako laguntzetan, eta iragarritako partida berria ere ez da nahikoa oraindik. Nafarroa hartu dugu erreferentziazat, gure herriaren zati bat ez ezik, araubide fiskalari dagokionez komunitate bikia delako eta baliabideen dagokienez parekoa ere badelako. Laguntza horiek 2.200 eurokoak izan dira Nafarroan. EAEn esfortzu berdina egin izan balitz, jarduera utzi duten 50.000 autonomoentzat 100 milioi baino gehiago bideratuko lirateke. 2 hilabeteko atzerapena kasurik onenean, eta laguntza eskasak. EH Bilduk, EAEn ere Nafarroan ezartzen diren zenbatero bereko prestazioak ezartzea proposatu du eta gainera, osasun-arazoak (terrazekin gertatutakoa ikusi dugu) edo epe laburrean bezerorik ez egoteagatik diru-sarrerarik ez izateak (ostalaritza-, merkataritza- edo turismo-sektorea) sortzen duen presazko berrikitze arriskuaren aurrean, langile autonomoek negozioak berriro ireki edo egoera normalizatu arte itxaron ahal izatea aukera ematea proposatzen du, bitartean diru laguntzak mantenduz.

Lehia desleialaren aurkako defentsa

422:A1: Jaiegunetan saltoki handiak irekitzeko debekua.

422:A2: Funtsezkoak ez diren produktuak merkataritza elektronikoaren bidez saltzeko debekua.

422:A3: Merkataritza elektronikoaren zerga-ezarpina areagotzeko premiazko akordioa.

422:A4: Saltoki Handien gaineko Zerga ezartzea.

422:A5: Merkealdia uztaile arte atzeratzea eta prezioetan oinarritutako promozioak debekatzea.

422:A6: EAEk merkataritzaren arloan duen eskumen eskusiboa berreskuratzea: eskumen hori murrizten duten lege-dekretuen atalak indargabetzeko eskatzea Madrilgo Gobernuari.

422:A7: Merkataritza-gune handien (Zaldunborda) proiektuak juridikoki geldiaraztea, ahal den neurrian, eta baimen berririk ez ematea.

Berehalako laguntza ekonomikoak

422:B1: Abal publikoen lerroen %20 langile autonomoentzat gordetzea.

422:B2: Luzamendu fiskala eta kuota, interesik gabe. Betebehar horien salbuespen partzialak.

422:B3: EUDELen adostasuna lortu Foru Aldundiei eskatzeko: %50eko salbuespena itxitako merkataritza-lokalen jabeentzat eta %25ekoa gainerako guztientzat, lokalaren jabea negozioa ustiatzen duena bada.

422:B4: Organo eskudunak jarduera uzteagatik aparteko prestazio bat aitortu dien langile autonomoek 2.200 euroko aparteko laguntza zuzena jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta haien guztizko diru-sarrerak ez badute gainditzen ezartzen den muga.

422:B5: Jarduera uzteagatik aparteko prestazioa jaso ez duten langile autonomoek 700 euroko aparteko laguntza zuzena jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta laguntza eskatu aurreko hilabete naturaleko fakturazioa gutxienez %30 murriztu bada aurreko sei hileko naturaleko fakturazioaren batez bestekoarekin alderatuta, eta gainerako diru-sarrerak ezarritako muga gainditzen ez badute.

422:B6: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren enplegurako pizgarrien aplikazioa langile autonomoen jarduera uzteagatik prestaziora hedatzea.

Jarduerari berriro ekiteko laguntza

422:C1: Bono-denden kanpaina masiboa: 100 euro EAEn bizi den adin nagusiko bakoitzari.

422:C2: Komunikazio kanpaina masibo eta iraunkorra hurbileko merkataritzaren alde.

422:C3: Autonomoen eta merkatarien elkarre-egiturak indartzen laguntzea, laguntza juridikoa eta aholkularitza ekonomikoa emateko.

422:C4: Txartel bidezko ordainketetan banku-komisioak etetea, ordaintzeko modu hori seguruagoa baita une honetan.

Etorkizuneko neurriak

422:D1: Merkataritza, Ostalaritza, Turismo eta Lan Autonomoko Mahaiak aktibatzea (sektore- eta erakunde-eragile guztiekin), jarduera epe ertain eta luzera osasun-segurtasunarekin eta berme ekonomikoekin garatzeko egiturazko neurriak diseinatzeko eta sektorea berreskuratzeke planak ezartzeko.

422:D2: Aparteko konpentsazioak murrizketa iraunkorrenak dituzten sektoreentzat: turismoa, ostalaritza, etab.

422:D3: Jarduerara itzultzeko egokitzapenak ordaintzeko laguntza-lerroa: obrak, ekipoak, etabar.

4.2.3. Manufaktura-industria eta eraikuntza

COVID-19ren krisiak ondorio kalkulaezinak eragin ditu euskal industrian, ekonomia osoan bezala. EAEko industriak 200.000 pertsonari baino gehiagori ematen die lana, kopuru osoaren %20,6ri, eta BPG-ren %24,2 sortzen du. Industria-ondasunen merkataritza-saldoa 5.199 milioi eurokoa izan zen 2018an, eta estaldura-tasa %125,6koa izan da. Industria defendatzea apustu estrategikoa da euskal ekonomiarentzat eta gizartearentzat. Industriak balio erantsia, soldata handiagoak eta baliabide fiskal handiagoak sortzen ditu.

Krisiak, lehenik geldiarazi, eta gero moteldu egin du industria jardura Euskal Herrian eta mundu osoan. Lehenengo arazoak geldialdi horren ondorioz etorri dira eta plantillen lan-egoerari, eskaeren kudeaketari, likidezia-premiei eta abarri lotuta egon dira. Jarduerara itzultzeak osasun-erronka bat dakar, erronka logistiko eta finantzario bat eta, azkenik, eskaera berreskuratzeko arazo bat, atzeraldi global handiko testuinguru batean. Esan beharra dago euskal enpresen produktuen erosle nagusiak honako hauek direla: estatu espainiar eta frantsesa, Alemania, Italia, Erresuma Batua eta AEB, hau da, krisiak gehien kaltetutako herrialdeak. Hori, automobilgintzaren sektorean, euskal industriaren nukleoan, edo siderurgian izan duen eragina aipatu gabe.

EAEen 26.523 ERTE aurkeztu dira maiatzera arte, guztira 186.955 pertsonari eragiten dietenak, eta dagoeneko EREak tantaka aurkezten hasi dira. Eustatek emandako lehen datuen arabera, EAEko industria-jardura %14,3 murriztu da martxoan eta %4,9 2020ko lehen hiruhilekoan. Apirileko datuak okerragoak izan daitezke. 2008ko krisiaren aurrekari negargarria dugu, euskal industria-ekoizpenaren zati handi bat suntsitu zuena (%20raino). Gainbehera horretatik ez gara oraindik erabat suspertu, ez sektoreko pisu espezifikoiari dagokionez, ez enpleguari dagokionez ere (baina bai ekoizpenari dagokionez, hamarkada bat geroago). Lidergo-bokazioa duen politika publiko indartsu batek baino ezin du artikulatu aurrekaririk gabeko krisi baten erantzuna, haren iraupena laburtu dezake eta euskal industria-sarearen egitura berritzeko oinarriak jar ditzake. Antolatutako behar dugun estrategiak lehen etapa bat izan behar du, krisiari aurre egingo diona, haren eragina geldiaraziko duena eta oinarriak jarriko dituen; bigarren etapa batean, euskal industriari laguntzeko eta egitura berritzeko neurriak antolatuzko.

EH Bilduk, lehenik eta behin, plantillen osasuna bermatzeko eta pertsonen enplegua eta erosteko ahalmena babesteko neurriak sustatzen ditu. Enpresen likidezia hobetzea proposatzen dugu, baita estrategikoak diren edo erreskatea behar duten enpresetan presentzia publikoa ere. Ez dugu ahaztu behar eraikuntzaren sektorerako alternatibak sortzea. Industriak egokitu behar ditugu, krisi-mota guztien aurrean erresilienteagoak izan daitezen eta, betiere, industria-sare teknologikoago, ekologikoago eta sozialago baten alde egin behar dugu lan.

Elkarrizketa eta gobernantza partekatua

423:A1: Mahai sozioekonomiko erreal bat eratzea: ekarpenak aintzat hartzeko eta erabakiak hartzeko eragile sozioekonomiko nagusi guztiekin osatutako esparru bat. Hori ez da Eusko Jaurlaritzak "mahai Sozioekonomikoa" deitzen duena, ezta "elkarrizketa sozialerako mahaia" ere, gaur-gaurkoz sindikatu nagusiak ez baitaude mahai horretan. Tresna berri, zabal eta eraginkor bat behar da.

Osasuna

423:A2: Langileen ordezkaritzarekin prebentzio-plan integralak adostea nahitaezkoa izango da jarduerarekin jarraitzeko edo berriz hasteko. Testak, babes-ekipoak, laneko joan-etorrietako segurtasuna, lantokiko segurtasuna, etabar. Enpresa-batzordeek plan horiek errespetatuko direla bermatzeko tresnak izango dituzte.

423:A3: Lan-ikuskaritza indartzeko neurriak eta ikuskapen-plan iraunkorra. Enpresetan ikuskapenak biderkatzea, prebentzio-neurriak betetzen direla bermatzeko.

Enplegua eta soldatak

423:B1: Estatu espainiarreko gobernuari ERTEak luzatzeko akordioa eskatzea (baita ekainetik aurrera ere) baldintza sanitarioek edo ekonomikoek jarduerari berriro ekitea eragozten dutenean, orain arteko baldintza berberetan, langa-bezia-prestazio berezia barne.

423:B2: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta erabiltzeko pizgarrien aplikazioa, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen ondoriozko prestazioetara hedatzea.

423:B3: Kalitatezko enpleguaren aldeko ituna: Alderdi politikoekin, eragile sozialekin, ekonomikoekin eta sindikalekin beharrezkoak diren elkarrizketa-prozesuak aktibatu beharko dira, kalitatezko enpleguaren aldeko herri-akordio handi bat ezartzeko.

423:B4: Lanbide birdimentsionatzea eta berrantolatzea. Lanbide berebiziko garrantzia du krisialditik ateratzeko. Funtsezkoa da dimentsionatzea eta berrantolatzea, prospekzioa, bitartekaritza, prestakuntza eta arreta pertsonalizatua bezalako funtsezko zereginak garatzeko.

423:B5: Kolektibo ahulenen enplegua babesteko, laneratze-enpresetan enplegua mantentzeko finantzaketa-lerroak indartzea eta enpresa horien jarduera birformulatzeko inbertsio-lerro bat aktibatzea.

Enpresen likidezia bermatzea

423:C1: Likidezia Plana: Enpresa bakar batek ere ez du itxi behar likidezia faltagatik: 1.525 milioiko finantzaketa lerroa (orain arte Eusko Jaurlaritzak 525 milioi jarri ditu martxan eta beste 500 iragarri ditu). Horri 500 milioi gehiago gehitzea eskatzen dugu, benetako eskaerak hor kokatzen baitira.

Inbertsioak eta erreskateak

423:D1: Enpresa estrategikoetan inbertitzeko plana: Finkatuz Funtza aktibatzea + 150 milioi. Guztira, 325 milioi euro.

423:D2: Erreskate publikoaren plana: Sarrera publikoa kapitalean. Enpresetan krisiak kudeatzeko protokoloa eta baliabi-deak. Gizarte-kudeaketako eredu berria erreskatatutako enpresetan. 200 milioi.

Etxebizitza eta hirigintza

423:E1: Etxebizitzak birgaitzea: Obra publiko handi asko geldiarazi behar direnez, eraikuntza-jarduerari laguntzeko proposamena: Euskal etxebizitza gehienak zaharkituta daude (parkea oso zaharra da) eta eraikuntza-eredua prekariora da, duela zenbait hamarkadako. Berritzeko aukerak: Etxebizitzaren barnealdea berritzea, atariak konpontzea, igogailuak jartzea, fatxadak isolatzea, hobekuntza energetikoak (galdarak, leihoak, etab.).

423:E2: Hiria berrantolatzeko plana: Hiriguneak pixkanaka berrantolatzea, berdeguneak eta aisialdi-guneak handitzeko, automobilari eskainitako espazioa murrizteko eta oinezkoak, bizikleta eta garraio publikoa lehenesteko. Lehentasunik ez izateagatik geldiarazten diren obretako langileak birkokatzen ere lagunduko luke.

Analisisa eta proaktibitatea

423:F1: Euskal industriaren kalteberatasunen mapa. Sektore eta enpresa ahulenetan neurri proaktiboak aztertzea eta hartzea. Balizko enpresa edo sektore-krisiei aurre hartzeko erantzun plana.

423:F2: Euskal industriaren gaitasunak aztertzea balizko osasun-krisien, hondamendi naturalen, istripu larrien (kimikoak, nuklearrak, etabar) aurrean. Euskal enpresek larrialdi-egoeran birmoldatzeko dituzten aukerak aztertzea, horiei erantzuteko beharrezkoak diren ekipamenduak ekoizteko.

423:F3: Euskal industriaren balio-kateen azterketa orokorra: Ibilbide laburragoak eta seguruagoak lehenestea. Krisialdi baten aurrean baliabide estrategikoen hornidura bermatzea.

Zeharkako lerroak

Plan, erabaki eta ekimen guztiek kontuan izan beharko dute zeharkako ildo hauen osagarritasuna:

1. Ekonomia Zirkularra eta Tokiko Garapena.
2. Trantsizio eko-energetikoa.
3. Trantsizio teknologikoa.

4.2.4. Kultura eta haren industria

Euskal kulturak eta kultura-industriak, salbuespenen bat izan ezik, oso baldintza eskasetan jarduten du eta horrek are ahulago bihurtzen du krisi-egoeretan. Kultur proiektu asko desagertzera behartuak egongo dira, batez ere euskaraz sortu edo garatzen direnak. Zenbat eta txikiagoa izan konpainia, sortzailea, proiektua edo enpresa, orduan eta zalantzarriagoa da etorkizuna. Krisi honek hutsune handia sor dezake, eta egoera horrek urteak iraun ditzake, gure ekosistema kultural osoari erantzungo dioten premiazko neurri sendoak hartzen ez badira.

Kultur jarduera pixkanaka berraktibatuko dela iragarri den arren, kultur kontsumoaren ezaugarriak direla eta, sektoreko industriak, proiektuek, konpainiek, taldeek eta profesionalak geroago heldu beharko diote beren ohiko jarduerari, besteak beste formatu berrietara egokitzeko. Kulturak gainean dituen mehatxuen eta ziurgabetasun hain larriaren aurrean, premiazkoa da larrialdi plan sendo bat abian jartzea. Berehalakoari erantzuteko ez ezik, euskal kultura heldutasun eta begirune handia erakusten ari den une honetan, atzera ez egiteko lagungarri izango dena. Nahiz eta potentzial handia izan, plangintzarik eta estrategiarik ezak ikusgarritasunik ez izatea eragiten dio gure kulturgintzari. Jauzi kualitatibo hori egiteke dago eta ezinbestekoa da ematea; horretarako, neurri sendoak hartuz, krisi honek eragin dezakeen zuloa saihestea beharrezkoa da.

Kulturarako urgentziatzeko larrialdi plana

424: A1: Krisi-funts espezifiko bat sortzea eta arautzea kultura-eremurako, bere zentzurik zabalenean; gure kulturaren eta euskal kultura-industriaren berezitasunak kontuan hartuta, eta alarma-egoeraren adierazpenaren ondorioz bertan behera edo etenda geratu diren jardueretako kultura profesional guztiek 2019ko diru-sarrera garbien hileko batez bestekoaren %70 eta %100 artean gutxienez jasoko dutela ziurtatuko duena. Ateratzen den zenbatekoaren eta progresibotasun-irizpideen arabera eta batez besteko soldatari dagokion muga bakarrekin.

Programazioa eta ordainketa

424: B1: Gauzatu ezin izan diren jarduerak ez eteteko konpromisoa. Berauek atzeratzeko konpromisoa hartuko da, aurreikusita zeuden egunean %30 ordainduz, eta gainerako %70a ikuskizun edo emanaldi horiek egiten direnean ordainduz.

Diru-laguntzen deialdiak

424: C1: Sorkuntza eta ekoizpen artistikorako diru-laguntzak handitzea; eta, salbuespen gisa, 2019an diru-laguntza jaso zuten proiektuak ere 2020ko deialdian aurkeztu ahal izango dira. 2020an gauzatuko diren proiektuek atzerapena izango dutela ikusita, horiek gauzatzeko justifikazioak eta erraztasunak emango dira, datak malgutuko dira eta 2021eko lehen hiruhilekoan programatu ahal izango dira, aurrekontu-ekitaldiko eta 2020ko ekitaldiko lerro edota programen kargura.

Kultura bonoa

424: D1: Kultur kontsumoarentzat pizgarriak ezarri (antzerkia, zinema, liburu-dendak, etabar.), saltoki txikiei eta pertsonen ekonomiari laguntzeko bono-denda anizkoitza bultzatuz. Bonu horren gutxieneko gastuaren eskakizuna 60 eurora murriztuko da (beste sektore batzuen 75 eurotakoa da), erosketak kulturaren sektorekoa bada.

Liburuaren sektorea

424:E1: Liburuaren sektorerako interesik gabeko kreditu-lerro bat sortzea: Liburu-dendak, banaketa eta argitaletxeak. Sortuko den kulturarako krisi-funtsarekin, liburutegi publikoetarako funtsak gehitu ahal izango dira eta hala eskatzen duten liburu-denden bidez egingo dira erosketak. Esleipenak proportzionaltasun-irizpideen arabera egingo dira.

424:E2: Literatura-argitalpenerako laguntzak %25 handitzea, laguntzen argitalpena aurreratzea eta argitalpen-planari dagokion kopuruaren gainean dirua aurreratzea.

Establezimenduen gastu finkoak

424:F1: Izaera publikorik ez duten antzokiek, sorkuntza-espazioek, zinema-aretoek, kultura-establezimenduek, liburu-dendek, kultura-prestakuntzarako espazioek eta abarrek 2020tik 2021era atzeratu ahal izango dute tasen ordainketa. Eta Eudelen hartutako akordioari jarraiki, Foru Aldundiei eskatu ahal izango diete itxi diren merkataritza-lokalen jabeek OHZ-ren %50eko salbuespena aplikatzeko, eta gainerako guztiei %25koa. Beti ere lokalaren jabea bada hura ustiatzen duena.

4.3. GIZARTE ZERBITZUAK

Ziur asko, Gizarte Zerbitzuek larrialdi honetan bizi izan dute krisi handienetako bat, sistemari bere jostura guztiak ikusi zaizkio. Zainketa eta babes beharrak areagotu egin dira, eta ziurrenik, norabide horretan jarraituko dute. Gizarte-zerbitzu publikoek gero eta eskari handiagoaren presioa jasan dute, baliabide urriagoekin, gabezia kritikoekin eta eskaintzan lurralde-desberdintasun handiekin. Krisi honetan zera geratu da agerian: Zainduko gaituzten erakundeak edukitzeko premia. Ematen ari diren eta iristear dauden zainketa eta babes beharrei erantzuteko, premia hori da zainketen eta babesaren erantzukizun publikoa asumitzea eta gure Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoa indartzea. Berau birdimentsionatzea, berrantolatzea eta garatzea, bertako kideak zaindu eta babestu nahi dituen komunitate baten erreferente bihurtu behar baitu.

COVID-19ren bigarren ziklo baten aurrean, adinekoentzako egoitza-zentroak prestatzea

43:A1: Adinekoentzako 300 egoitza-zentro baino gehiagoren egokitzapen fisikorako premia hori inbertsioen plana: banakako gelen kopurua handitzea, banaketa modularra eta, aldi berean, plaza berriak irekiz sarearen estaldura bermatzea.

43:A2: Zuzeneko arretako langileen ratioak handitzea: profesionalen txandakatzea murriztea.

43:A3: Euskal administrazioek titulartasun pribatuko zentroetan esku hartzeko duten eskumena atxikitzea. Zentro horietan, gomendioak, neurriak eta jarduteko arauak ez betetzearen ondorioz, erabiltzaileen zaintza arriskuan jartzen ari da.

43:A4: Adinekoentzako egoitza-zentroak ikuskatzeko plan berezi bat abian jartzea, Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzaren eskutik, COVID-19ren krisialdian zentro horietan zer gertatu zen jakiteko eta neurri zuzentzaileak proposatzeko, eta batez ere, iraupen luzeko zaintzaren eredu-aldaketari buruzko hausnarketari ekiteko behar den informazioa ebaluatze eta biltzeko.

Errekonozimendua, txaloetatik haratago

Krisialdian funtsezko lan gehienek feminizazioa eta prekaritatea izan dituzte ezaugarri. Zaintza bezalako sektoreetako lan eta soldata baldintzak hobetzea lehentasuna izan behar da.

43:B1: Erakunde arteko funts bat eratzea, zainketen sektoreko lan eta soldata baldintzen hobekuntza finantzatzeko. Funts horrek "aparteko prima" bat izango du COVID-19ren krisian egoitzetan lan egin duten emakumeentzat.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hibernazioaren amaiera: Oinarritzako Gizarte Zerbitzuak birdimentsionatzea eta gizarte-lanari zentralitate berria ematea

43:C1: Eguneko zentroak berriro irekitzeko plangintza premiaz egitea, autonomiaren mugek eragindako beharrei erantzuteko. Plangintza horrek, besteak beste, honako elementu hauei erantzun die: progresibotasuna eta zentro, ingurune

eta biztanle hartzaile bakoitzaren errealitate immunologikora egokitzea; titulartasun publiko eta pribatuko zentroek bete beharko dituzten baldintza materialak, funtzionalak eta langile-baldintzak hobetzea.

43:C2: Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Funtza, toki-erakundeen finantza-nahikotasuna bermatzera bideratua, honako neurri hauei aurre egin ahal izateko: Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren sarbidea erraztea eta estaldura eta gehieneko intentsitatea areagotzea; gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzuak indartzea; zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak indartzea; sektoreko lan- eta soldata-baldintzak hobetzea eta etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zerbitzuak indartzea eta egokitzea Covid-19ren bigarren zikloari aurre hartuz.

43:C3: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan gizarte-langileen plantilla handitzeko laguntza-lerroa.

4.4. HEZKUNTZA-SISTEMA

COVID-19k bete-betean jo du hezkuntza sistema. Hezkuntza presentziala irakaskuntza telematikoko bihurtu da egun bate-tik bestera, horrek dakarren guztiarekin, eta suposatzen duenaren inguruan alde aurretik inolako hausnarketarik egin gabe. Ondorioa argia da: gabezia eta ezintasun handiak zituen hezkuntza eredu eta sistemak arazo larriak izan ditu sortu-tako egoerari aurre egiteko. Kasu askotan, hezkuntza-komunitatearen inplikazioari esker, aipatu ditugun zailtasun batzuk gainditu ahal izan dira. Hala ere, hezkuntza-komunitatea baldintza prekarioetan ari da lanean eta soluziobideak ezin dira atzeratu.

Gauzak horrela, sistemak dituen egiturazko arazoak areagotu egin dira eta ikasle asko dira hilabete hauetan sistematik are gehiago aldenitu direnak, batez ere ikasle ahulenak.

Beraz, hezkuntza bizitzari eusteko funtsezko zutabea izanik, neurriak hartu behar dira ikasleak ikastetxean kokatzeko eta inor atzean ez uzteko; hezkuntza-sistemak bere funtzio konpentsatzailea berreskuratu behar du (sozioekonomikoa, linguistikoa, kulturala, generokoa), eta, ildo horretan, premiazko ezohiko neurriak planifikatu eta abian jarri behar dira.

Datorren ikasturtea “ezohikoa” izango dela uste da, osasun alarma ez baita bat-batean desagertuko; beraz, orain da garaia egoera aztertzeke, gertatutakotik ikasteko eta prestatzeko, ezin baitugu inprobisatzen eta inertziak kudeatzen jarraitu.

Hezkuntza-mahaiak

44:A1: Hezkuntza-mahaiak sortzea (bai EAE mailan, bai udal mailan, non Lan Arriskuen Prebentziorako Osasun Zerbitzuek funtsezko zeregina izango duten). Datorren ikasturtea hezkuntza-sistema eta administrazioa (tokikoa ere bai) osatzen duten sektore guztien artean planifikatu behar da. Irizpide orokorrak definitu behar dira, sektore bakoitzaren beharrak eta ekarpenak kontuan hartuta. Eragile gehienek, hain zuzen, mahai hori eskatu dute.

Ratioak

44:B1: Irakasleen eta hezitzaileen plantilla handitzea. Kalitatezko hezkuntza-prozesuaren garapena bermatzeko beharrezkoa den ratioen murrizketa saihestezina bihurtu da orain, baldin eta ikasle, irakasle eta, oro har, langileen osasun-baldintzak ziurtatuko badira. Klase bakoitzean gehienez 15 pertsona egongo direla ziurtatu da. Beraz, ratioak %40 murriztuko dira. Horrek irakasleen eta hezitzaileen kopurua handitzea dakar, hezkuntza-kalitatea bermatzearen alde.

Eredu mistoa (presentziala eta telematikoa) bermatzeko, datorren ikasturtean 10.000 profesional gehiago behar dira.

Azpiegiturak

44:C1: Espazio berrien egokitzapena. Ratioak murrizteak espazioak modu seguruan egokitu behar direla eta azpiegitura gehiago behar direla jartzen du agerian. Irakaskuntza presentziala lehenesteko, beharrezkoa da espazio berriak prestatzea. Baita jolas-orduetarako ere.

Ikastetxeetako espazioak osasun-berme guztiekin egokitu behar dira (administrazioen erantzukizuna). Beharrezkoa bada, azpiegitura berriak egokitu behar dira: zenbait ikasturtetan eraikin “aurrefabrikatuak” egiteko aukera aztertu (adibidez, ikasle zaharrenak lekualdatuz) eta udal azpiegiturak egokitu (liburutegiak edota kultur etxeak eskainiz hezkuntzarako).

Curriculum, metodologiak eta ebaluazioa

44:D1: Curriculumak egokitzapena behar du nahitaez, eta ondorioz, metodologiak eta ebaluazioak ere bai. Adituek adierazi dutenez, malgutasun hori erdiesteko, lortu beharreko helburuetan eta gaitasunetan zentratu behar da, ikasgaien eta edukien transmisioan baino gehiago.

COVID-19ren testuinguruan atzerakada larriak gertatzen ari dira euskararen irakaskuntzan eta erabileran. Inguru sozial eta familiar ez-euskaldunetako milaka ikaslerentzat euskara entzun eta erabiltzeko aukera larriki murriztu da hilabetetan zehar eta horrek hizkuntza-gaitasunak lortzeko helburuetan genuen arazoa areagotuko du.

Curriculum egokitzean, arreta berezia jarri behar zaio euskararen ezagutzaren eta erabileraren eta euskal kulturaren transmisioaren plangintzari, bai eta hezkuntza bereziaren plangintza espezifikoi ere.

Baliabide teknologikoak

44:E1: Errealitatea aztertu behar da eta oinarrizko neurriak ezarri (ikasleen %15 inguru baliabide teknologikorik gabe dago). Kasu askotan, aurrez aurreko irakaskuntza on-line irakaskuntzarekin konbinatu beharko dela suposatuz, ezinbestekoa da ikasleek eta lanbide-sektoreak beharrezko baliabide teknologikoak eta konektagarritasuna bermatuta izatea. Software eta wifi sare libreak lehenestea planteatzen dugu, multinazionalak datuak salerostea saihesteko, euskarazko eskaintza bermatzeko eta modu seguruan konektatu ahal izateko.

44:E2: Ordenagailuak eta software libreko konektibitatea ziurtatzea ikasle eta profesional guztientzat. 3.000 kit berri.

44:E3: Irakasleak eta familiak teknologia berrietan trebatzea (Berritzeguneak + familia-eskolak).

Zaugarritasun egoeran dauden ikasleentzako laguntzak

44:F1: Bekak handitzea. %50 areagotzea.

44:F2: Hezkuntza errefortzuak areagotzea.

Garraio- eta jantoki-zerbitzuak

44:G1: Beharrezkoa balitz, udal instalazioak egokitzea zerbitzu hau eskaintzeko.

Osasun-neurriak

Krisi berriak egon daitezkeela aurreikusita, hezkuntza-arloan ere jarduteko protokoloak prestatu behar dira, beharrezko malgutasunarekin, larrialdi-egoera batek berriro ustekabeen harrapatu ez gaitzan. Horretarako, beharrezkoa izango da Laneko Arriskuen Prebentziorako Osasun Zerbitzuak indartzea.

44: H1: EH Bilduren hezkuntzarako deseskalatzeko proposamena.

5. BALIABIDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK

Lehen aipatu dugun bezala, pandemiaren ondoriozko behar sozial eta ekonomiko handiak direla eta, baliabide publiko eta pribatu ugari mobilizatu behar dira, hain zuzen ere, historia hurbilean aurrekaririk ez duen diru-sarrera fiskalen jaitsieraren testuinguruan. aurrekaririk ez duten diru-sarrera fiskalak gutxituko diren testuinguruan. Gastu publikoaren beharrak ez datoz bat aurreikusitako diru-sarrera fiskalekin.

Egoera horrek jarduteko hiru bektore ahalik eta azkarren aktibatzea behartzen du:

1/, Larrialdi-planean jasotako jarduerak finantzatzeko helburuarekin, ezohiko diru-sarrerak izateko mekanismoak ezartzea. Aktibazio ekonomikoa funtsezko helburutzat hartuta, baina inbertsioa egungo eta etorkizuneko erronka eta beharrian sozialetara bideratuta. 5.1 eta 5.2 ataletan garatua.

2/2020ko ekitaldiko gastu-aurreikuspenak aldatzea. 5.3 atalean garatu da.

3/Orain arte erabili ez diren inbertsio eta finantzaketa mekanismoak izatea, hurrengo hilabeteetan egoera ekonomiko benetan konplexuari aurre egiteko. 5.4, 5.5 eta 5.6 ataletan garatua.

5.1. COVID TASA

Proposamen hau gerturapen bat da, horregatik, proposamen hau zehazteko eta onartzeko, eta batez ere, lortu beharreko diru-sarrerak kalkulatzeko azken ekitaldietako zerga-betearazpenari buruzko datuak eta jarduera ekonomikoaren jaitsieraren hipotesitik abiatuta egindako simulazioak sakonago aztertzea beharrezkoa da. Nolanahi ere, gure ustez, proposamen hau, inplementatu beharreko tipoen eztabaidan sartu ahal izateko bezain zehatza da, eta horrela, gure erakundeen finantza-beharrak areagotzen diren bitartean eztabaida hori ez dela betikotuko bermatzeko modukoa.

EH Bilduk, lurralde bakoitzeko Batzar Nagusietan COVID Tasa lehenbailehen zehaztea eta ixtea proposatzen du, horrela, euskal erakundeek datozen hilabete eta urteetan izango dituzten finantzaketa-beharrei aurre egiten lagundu ahal izateko.

Premiaz behar ditugun politika publikoak ezartzeko behar adina baliabide bermatzeko zerga-neurri gehigarriak eta salbuespenezkoak aplikatzea ezinbestekoa da. Fiskalitate progresiboago eta bidezkoago bati buruzko beharrezko eztabaidarekin batera, COVID Tasa delakoa ezartzeko proposatzen da, errekaratu gisa, zuzeneko zerga hauetan gaitasun ekonomiko handiena duten pertsona eta enpresen zerga-tasak, aldi baterako, zati batean, baina nabarmen handitzea ekarriko duena:

- Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga.
- Sozietateen gaineko Zerga.
- Ondarearen gaineko Zerga.
- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

COVID Tasa honen ezaugarri orokorrak honako hauek lirateke:

Aldi baterakoa eta ez ohikoa: COVID Tasa onartzea proposatzen da, fiskalitate berri progresiboago eta ekitatiboago bat ahalbidetuko duen zerga-erreforma sakon bat egin bitartean; izan ere, aurre egin behar diogun krisi ekonomikoa aurrekoa baino gogorragoa da, eta ahalegin publiko handia egin beharko da denboran zehar.

Partziala: COVID Tasa hori egungo zerga-arauketaren esparruan zerga-tasa altuenei aurre egin behar dieten pertsona eta enpresei soilik aplikatu dakiekeela proposatzen da, horiek baitira, hain zuzen ere, erosteko gaitasun handiena duten pertsona fisiko eta juridikoak, eta beraz, pairatzen dugun salbuespenezko egoera honetan ezinbesteko ekarpena egin beharko dutenak.

Esanguratsua: Nahiz eta progresiboki eta zergen artean aldeak egonik, pertsona fisiko eta juridiko horien ekarpenak gaur egun egiten dutena baino nabarmen handiagoa izan behar duela uste dugu.

Laburbilduta, esan dezakegu, proposatzen dugun COVID Tasa aplikatzeak honako hau ekarriko lukeela:

- Errekargua PFEZaren tarte altuenetan.
- Aurreko ekitaldiarekin alderatuz %10etik gorako kontabilitate-irabaziak izan dituzten enpresa ertain eta handien gainordaina Sozietateen gaineko Zergaren zerga-tasan.
- Gainordaina Ondarearen gaineko Zergaren zerga-tasetan, eta benetako progresibotasuna bermatzeko ezkutu fiskala kentzea.
- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan zerga-tasen errekaratua.

Aurreratu dugun bezala, diru-sarrerak COVID Tasa honen bidez kalkulatzeko azterketa sakonagoa egin beharko litzateke. Nolanahi ere, uste dugu, Tasa hau ezartzeak urtean 300 eta 350 milioi euro arteko bilketa ekar dezakeela.

5.2. BERRERAIKUNTZARAKO EUROPAKO FUNTSAK

Europako Batzordeak susperraldi planaren ezaugarri nagusiak aurreratu ditu; pandemiaren ostean ekonomia europarra suspertzeko ari da diseinatzen plana, hiru zutabe nagusitan oinarrituko dena, eta ustez, inbertsioak aurtengo urtera aurreratu ahal izango dira.

Funtsaren zatirik handiena lehen zutabearen egongo da, pandemiatik erreuperatzera bideratua. Funtsaren lehen zutabea, blokearen bi lehentasun estrategikoekin lerrokatuta egongo da: Trantsizio klimatikoa eta digitala.

Planaren bigarren blokeak inbertsio estrategikoetarako tresna bat izango du, Europar Batasunak sendagain ekoizpenean kanpoko estatuekiko duen mendekotasuna murrizteko, esaterako. Pandemiaren ostean birkapitalizatu behar diren enpresei ere lagunduko zaie Europako funtsekin. Susperraldiaren hirugarren eta azken zutabea Europako programetan oinarrituko da, hala nola, "Horizonte" ikerketa-programan eta beste programa berri batzuetan, adibidez osasunari buruzko programa espezifiko batean.

Zer ikustekorik ez Espainiako Gobernuak 2008an abian jarri zuen E planarekin. Europatik datozen berreskuratze-funtsen helburua ekonomia suspertzea izango da, baina Europar Batasunak ezartzen dituen garapen-ildo estrategikoen arabera bideratuko dira.

Finean, Europar Batasunaren berreraikuntzarako proposamenak COVID-19ren agerpenaren aurretik zeuden planen uz-tarketa baten emaitza dira, itun berdea (European Green Deal) eta agenda digitala kasu. Mekanismo hauek epe ertainean ekar ditzaketen inbertsio-aukerak metabolismo sozioekonomiko iraunkor eta erresiliente baterako eraldaketaren alde baliatu behar dira. Gure itun berde propioa behar dugu ezinbestean, zeinean industria-berrikuntza gure ehun produktiboaren eraldaketa ekologikoarekin uztartu behar dugun. Finean, aktibazio ekonomikoa deskarbonizazioarekin lotu behar da. Honetxek dira eraldaketa honetan sektore klabeak:

-Energia:

Trantsizio energetikoan eta deskarbonizazioan inbertitu. Administrazioari (Iraunkortasunerako Euskal Energia legea garatu ahal izan dezaten) zein norbanakoei eta enpresei zuzendua; energia berriztagarrien ezarpena, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien produkzio, instalazio eta mantenuari lotutako enplegua sustatuz.

-Etxebizitzaren birgaitzea:

Etxebizitzaren Renove Plana. Etxebizitzak modu masiboan birgaitzeko helburuz, efizientzia energetikoa igoz, kontsumoa gutxituz eta kanporako dependentzia energetikoa gutxituz; eta, bide batez, eraikuntzako autonomoen sektorean enplegua berreskuratuz. Eraikuntza berrien kasuan, zoruen banku publiko baten sorrera eta Pasiv house delakoarekin bat datozen estandarren exigentzia.

-Mugikortasun iraunkorra:

Mugikortasun hurbilerako inbertsio plana, mugikortasun ez-motorduna (hirigintzaren berrantolaketa, bizikletentzako bi-deak) eta mugikortasun elektrikoa (publikoa eta kolektiboa lehenetsiz), zeinaren garapenak I+G+bn inbertsioak eskatzen dituen. "Azken mila" deritzan kontzeptuaren garapenean inbertitu, kotxeak elkarbanatzeko sistemak, bizikleten maileguak, poligonoetarako autobus lanzadera sareak, etabar.

-Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa:

Ekonomia zirkularrean inbertitu, estrategia efizienteenak aplikatuz, zeinek gure produkzio eta kontsumo zikloak berrantolatu, berlokaltatu eta berdimentsionatuko dituzten. Honek I+G+bn inbertitzea eskatzen du. Zabortegiak publikatzeko inbertsioak.

-Onura klimatikodun bestelako inbertsioak:

Aldaketa klimatikoari aurre egiten dion inbertsio aukera zabala dago, azpiegitura berdeak (Natura 2000 sarearen garapena, gerriko berde periurbanoak), aldaketa klimatikoaren ondorioetara egokitzea, turismo iraunkorrerako azpiegiturak, elikagai agroekologikoen eta 0 KMko elikagaien transformazioa eta banaketa, baso-politika iraunkorra, etabar.

5.3. 2020KO EKITALDIKO GASTU-AURREIKUSPENEN ALDAKETA

Krisi-egoera honek, aberastasuna sortzeko eta gizarte-desberdintasunak murrizteko printzipioen gainean jarduteko lehen-tasunak eta baliabideen esleipena birpentsatzera behartu behar ditu administrazio publikoak, proposamen bortitz baten bidez. Administrazioak oso ondo definitu behar du zer den gizarte-ongizateari benetan balioa ematen diona. Eta hori oinarritzat hartuta esleitu behar dira baliabideak, egoera kezkarri honetan kudeaketa eraginkorrena eta efizienteena egin ahal izateko. Hori dela eta, 2020ko ekitaldiko gastu-aurreikuspenak aldatzeko garaia da; izan ere, 2019ko abenduan onartutako aurrekontuek ezin zuten aurrekusi aurrean dugun krisi hau, noski.

AHTaren eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbidearen moratoria

2020ko ekitaldirako gastu publikoa berrantolatzeak inbertsio batzuk birplanteatzea dakar, datozen hilabeteetan ahalegin ekonomiko handia dakartenak, eta ondorioz, lehentasunezko eta premiazko beste inbertsio batzuk egitea eragozten dutenak. AHTko eta Hegoaldeko Trenbide Saihesbideko inbertsioa birplanteatzeak eta atzeratzeak, azken batean moratoria ezartzeak, hurrengo bost urteetan premiazko beharrei erantzuteko (inbertsioak hezkuntzan eta osasun-sisteman, adibidez) 1.000 milioi euroko inbertsio ahalmena emango luke. Etenaldi horien kostua oso txikia da, eta etorkizunean azpiegitura horientzako azken eta behin betiko erabakia hartzeko aukera ematen du.

Diru-kutxa autonomikoen aurreratzen dituzten zenbateko horiek, geroago kupoaren kalkuluan deskontatzen badira ere, krisi egoerak eskatzen duen berehalako likideziaren ondorioz, dauden lizitazio eta kontratazioak bertan behera uztera behartzen gaituzte. Era berean, Madrilgo Gobernuarekin egungo kudeaketa-garapenaren negoziazioa eta aldaketa gauzatu beharko da.

5.4. FISKALITATE BERRIA

Aldi baterako eta ezohiko tributu-neurriez gain, premiazkoa da zerga-ereduari buruzko eztabaida sozial eta politiko sakona egitea. Aski ezaguna da gure jarrera politiko kritikoa indarrean dagoen fiskalitateari dagokionez. Hala ere, krisi ekonomiko honek eztabaida fiskala mahai gainean jartzen du, herrialdeko indar politiko nagusiek orain arte planteatutako jarrera ideologikoetatik haratago. Krisi honi emango zaion erantzuna ezin da izan 2008kokrisiari emandako erantzun austerizida hura. Lehenik eta behin, ez gaudelako onartzeko prest. Eta bigarrenik, gizarte haustura jasanezina izango litzatekeelako, baita gaur arte politika neoliberalak defendatu dituzten askorentzat ere.

Premiazkoa da zerga-sistema askoz progresiboago eta ekitatiboago bati buruzko eztabaida planteatzea, sozialki aurreratuenak diren Europako herrialdeen presio fiskaletik gertu egongo dena. Fiskalitate berri horrek, garapen ekonomiko eta sozialerako ezinbesteko tresna ezinbesteko tresna denak, gaur egun kontuan hartzen ez diren aldagai berritzaileak barnebildu behar ditu, hala nola fiskalitate berdea.

5.5. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN GAINEKO POLITIKEN DESAKTIBAZIOA

Aurrekaririk gabeko egoera bati aurre egin behar diogu, bizikidetzari eta ongizateari erronka jartzen diona, egoerari aurre egiteko aparteko baliabideen beharra mahaigaineratzen duena. Horrek, krisialditik irteten laguntzeko baliabideak sortu ahal izateko, azken urteotan Europako esparruan indarrean egon diren aurrekontu-egonkortasun politika austerizidak gaintzea eskatzen du.

Dirudienez, Europar Batasuna eta nazioarteko beste erakunde batzuk malguago agertu dira malgutasun-politika horiekiko, finantzaketa-mekanismo alternatiboen bilaketarako besteren artean. Azter dezagun, lan-eremu hau erabakitze gaitasunetik gure herriak egungo egoera gaintzeko eta etorkizuneko berrikuntza-prozesuak aktibatze duen gaitasuna indartzeko helburuz. Neurri horretan, ezinbestekoa da Espainiako Estatuak politika austerizida horiek garatzeko ezarritako lege-esparrua desaktibatzea, eta zehazki, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa bertan behera uztea.

Guri dagokigunez, premiazkoa da behar ditugun politika publikoak finantzatzeko zerga- eta finantza-arloko ibilbide-orri propioa adostea. Zorpetzerako eta defizit publikorako muga berriak ezarriko dituen ibilbide-orri bat beharrezkoa da, aurreko ekitaldiko superabita inbertitu ahal izatea eragotzi duen gastu-araua gaindituko duena, baita udal-mailan ere.

Beraz, herri-akordio bat proposatzen dugu; Kontzertu ekonomikoak eskaintzen dituen aukerez baliatuz, Espainiako Gobernuarekin zorpetze-politika berri bat negoziatzea dezagun, gure errealitate propioarekin eta behar ekonomikoekin bat datoirena eta gizarte zein herri gisa ditugun erronkei erantzungo diena.

Ibilbide-orri berri bat behar dugu, belaunaldien arteko elkartasunean oinarritua eta modu partekatuan eraikia, berreraikuntza ekonomikoari eta behar ditugun politika publikoei eusteko gai izango dena. Horretarako, lehenengo urratsa adostasun politiko bat eraikitzea da, hurrengo hilabete eta urteetan nola eta noraino zorpetuko garen erabakitzeke ahalmen subiranoa herri-mailan aldarrikatzeko eta negoziatzeko.

5.6. INBERTSIO ESTRATEGIKOETARAKO FUNTSA

Azken aldian, asko izan dira atzerriko kapitalaren kontrolpera pasa diren euskal enpresak. Gamesa, Euskaltel, Ibermatica eta beste asko, kanpoko enpresek edo funtsek xurgatu, erosi edo kontrolatu dituzte. Enpresa horien erabakiguneak galtzeak, Euskal Herriarekin etorkizunean izango duten harremana kolokan jartzen du, eta arriskuan jartzen ditu diru-sarrera fiskalak, tokiko hornitzaileekiko harremana, trakzio-izaera, inbertitzeko politika, etabar. Kutxabank-en desinbertsioen politikak joera hori bizkortu du. Ez dira krisian dauden enpresak; aitzitik, kasu askotan, euskal industriaren harribitxiak dira, eta horregatik, inbertsiogile indartsuen arreta erakartzeko aukera handiagoa dute. Funtsezkoa da uneoro, eta are gehiago aurrekaririk gabeko krisialdian, enpresa horiek lurraldearekin duten lotura sendotzea, eta konpromiso moral etereoetatik harago, kapital publikoa sartzeko da hori egiteko modurik onena, eta ahal bada, administrazio-kontseiluetan sartzeko.

Erabakiak hartzeko zentroak galtzearen arriskuak hain dira handiak, non Eusko Jaurlaritzak berak bere gain hartu baitu enpresa estrategikoen errotzea areagotzeko beharra. Zeregin horretarako, legegintzaldiaren hasieran inbertsio-tresna bat sortu zela iragarri zuen, geroago "Finkatuz Funtsa" deitu zena. Gobernuaren funtsen egituraren aldi baterako inbertsioak (arrisku-kapitala) edo inbertsio iraunkorrak daude, eta Finkatuz azken maila horretan kokatuko litzateke, SOCADE ordezkatzuz eta zabalduz. Duela lau urte iragarri bazen ere, funts hori oraindik ez da martxan jarri eta Eusko Jaurlaritzaren ezintasuna agerian geratu da.

Hirugarren enpresetan parte hartzeko bankuei ezarri zaizkien baldintzek zaildu egiten dute aurrezki-kutxek strategikotzat jotzen diren enpresetan posizioak mantentzeko bete izan duten funtzioa. Horrek, Kutxabank erakundeak jokatu duen papera ordezkatzeko eskatzen du, aktibo ez-finantzarioetako inbertsio-funtsekin bat edo batzuk sortuz (jardueren arabera espezializazio-planteamenduen arabera), zuzenean enpresa-apustu publikoetan edo mistoetan inbertsioak eginaz edo beste inbertsio pribatu edo gizarte-ekonomiako inbertsioei lagunduz, irizpide estrategikoen eta errentagarritasunaren arabera. EAEn BGAEek duten sendotasuna, proportzionalki Estatukoak baino bost aldiz handiagoa, sostengu puntu ona da.

Mota horretako inbertsio-funtsekin bat edo gehiago sortzeko behar diren mekanismoak antolatzea ezinbestekoa da. Egungo krisi ekonomikoari gehitu behar zaio euskal industriari aldaketa handiak bizi dituela, trantsizio energetikoak, robotizazioak eta digitalizazioak markatutakoak. Industrian rol bultzatzaileak hartuko dituen industria-politika aktibo baterako beharrezko tresna da.

6. EPILOGOA

Larrialdi-plan honetan proposatutako neurrietako bakar batek ere ez du ahalmen osoko Legebiltzarra behar. Beste modu batera esanda, jarduneko gobernu batek eta Aldundien parte-hartzeak aktibatu dezakete larrialdi-plan hori. Behar dena, gobernatuko duen gobernu bat da, ondo gobernatuko duena; eta erantzunkizuna indar politiko guztien aldetik.

Krisi sanitarioaren zein sozioekonomikoaren kudeaketak eskatzen duen sekuentzia instituzionala honako hau da 2020an:

Hurrengo hiru hilabeteetan honako zeregin hauetarako garaia da:

- 1/Erakundearteko larrialdi plana diseinatu eta aktibatzea; horretarako, 2020ko ekitaldiko aurrekontuan gastu-aurreikuspenak aldatu behar dira.
- 2/Aparteko diru-sarrerak biltzea, honako helburu honekin: krisiaren berehalako ondorioak arintzea eta klabe eraldatzailan bideratzea aktibazio ekonomikoa.
- 3/Finantziario eta inbertsio mekanismoak aktibatzea, erronka ikaragarriak aurkezten dituen egoera sozioekonomiko berri baterako.

Irailean, osasun-baldintzek aukera emanez gero, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egiteko unerik egokiena izango litzateke. Udazkenean 2021eko aurrekontua diseinatu eta onartu beharko litzateke.

Dei egiten dugu atzerapenik gabe aktibatu daitezen gobernantza-mekanismo egokiak, dokumentu honetan deskribatutako lau jarduera-arloetako bakoitzean erakundearteko esku-hartze interbentzionista baterako ahalik eta adostasun handienak bilatzeko. Eragile instituzional, ekonomiko eta arko bakoitzeko gizarte zibileko eragile nagusiek hartu beharko lukete parte gobernantza ariketa honetan. EH Bilduk, bere aldetik, larrialdi-planaren proposamena jarri du mahai gainean, eta horren inguruko edozein gai eztabaidatzeko eta beharrezko adostasunak lortzeko prest dagoela adierazi du. Gure printzipio gidaria erantzukizuna izango da, beti. Gauza bera eskatzen diegu gainerako indar politikoei ere.